SIDARI
Xake Produkzioak

Lan talde artistikoa

Iholdi Beristain



Hodei Arrastoa



Getari Etxegarai



Kepa Errasti



Sinopsia

Badakigu orainak etorkizuna alda dezakeela, baina aldatu ahalko luke etorkizunak oraina? Hogei eta hamar urteen bueltan dabilen bikote gazte baten istorioa da honako hau. Jone eta Jokinek interrail bidaia bat egitea erabaki dute Europan zehar beraien zortzigarren urteurrena ospatzeko.

Harremanari dagokionez, oso puntu ezberdinetan dago bakoitza; Jokin bere neskarekin oso gustura dagoen bitartean, Jonek zerbait gehiago falta duela sentitzen du, eta zalantza handiak dauzka ea Jokin den bere bizitzako bikotea. “Bizitzako bikotea”. Existitzen du horrelako zerbaitek?

Trenean igotzearekin bat, bikote edadetu oso berezi batekin topo egingo dute. Hauek ere ez daukate norabide garbirik, baina gomendio bat egingo diete; Corfu irlako **Sidari** herrian dagoen kanal zoragarri bat bisitatzea eta kanal hura igerian gurutzatzea. Hori egiten duten bikoteek bizitza guztirako maitasuna eskaintzen omen diote elkarri.

Bidaiako momentu ezberdinetan atso agure horiekin topo egin ahala, Jone modu logiko eta arrazional batean ulertzeko oso zaila den zerbait susmatzen hasiko da; eta bikote arraro hori beraiek balira lau hamarkada geroago?

Proiektuaren egoera



Testu idazketarako diru laguntza

Proiektu honek 2025eko Eusko Jaurlaritzako Antzerki Testu Idazketarako diru laguntza jaso du, eta dagoeneko lehen bertsio bat idatzita dago. Duela gutxi egin dugu lehen irakurketa.

Gure asmoa 2026ko irailean estreinatzea da, Tolosan. Hori horrela izanik, entsegu prozesu luzeena datorren urteko udaberri eta udara bitartean egingo dugu, hiru bloketan banatuta.

Entseguak eta estreinaldia

Hitzartutako Zirkuitua

Datorren urteko udaberrian argitaratuko diren Hitzartutako Zirkuituko diru laguntzetara aurkezteko asmoa daukagu 2026-2027 ikasturtean zehar gure emanaldiak burutu ahal izateko.

Proiektuaren ezaugarriak



Pertsonaiak

Istorio honetan denboraren mugak apurtu egingo dira. Tren bidaia bat egitera doan bikote batek beren zahartzaroko bertsioarekin topo egingo du, beraiek direla jakin gabe. Bikote zaharrak ordea jakingo du gazte horiek beraiek direla, eta horrek, dramaturgikoki, joko handia emango dio istorioari. Bikote gaztea pixkanaka joango da susmatzen bikote zaharra beraiek izan daitezkeela, baina sekula ez da modu inplizitu batean esango. Beraz lau izango dira pertsonaiak: Jone eta Jokin, bikote gaztea eta Juana eta Joaquin, bikote zaharra.

Estiloa eta generoa

Estilo aldetik, komedia bat izan arren, errealismo magikotik ere asko izango luke obrak, denboraren pertzepzio errealista horren hausturagatik eta batez, ere bikote zaharrari eman nahi diogun kutsu “farseskoagatik”. Gazteek modu naturalista bat erabiliko duten bitartean, zaharren pertsonaiak modu esperpentikoago batean landuko ditugu. Iruditzen zaigu horrek komedia handia eman ahal digula.

Eszenografia

Lau eserleku dituen bagoi bat izango da agertokia, kanpoaldera ematen duen leiho batekin. Trena leku batetik bestera ibili arren, akzio guztia bagoian bertan gertatuko da bidaian zehar, elipsi bidez, azkeneko etapan izan ezik. Azkeneko etapa hori jada Sidarin izango, obra guztian zehar aipatzen den kanal famatu horretan.

Hori horrela izanik, “bagoi” horri ere ez diogu kutsu erabat errealista eman nahi, eta seguraski hautsi egingo dugu obran zehar “forma” ezberdinak eman eta espazioarekin jolastu ahal izateko.

Bidaiaren kontzeptuak, denbora guztian mugimenduan egoteak, badu gainera zentzu metaforiko bat bizitza bera eta harremanekin lotuta.

Gaiak

Komedia bat izan arren, gai potoloei eutsi nahi diegu eta publikoari gogoeta egin arazi. Hauek izango lirateke besteak beste gai nagusiak.

Bikote harremanak/ maitasuna	Obrako gai nagusienetako bat izango da. Zeri deitzen diogu bikote harreman bat? Harreman bat hausten denean nora doa elkarri eskainitako maitasuna? Hautsi egiten da hori ere? Ta irauten badu, zenbat irauten du
Bakardadea	Harreman eta bizitzako bidelagunei buruz ari garenean nahi eta ez ateratzen den gai bat da. Prest gaude bakarrik zahartzeko, batez ere ondoan familia edo bikoterik ez badugu?
Zaintza	Aurreko gaiarekin erabat lotuta. Zahartu ahala beste batzuen geroz eta behar handiagoa daukagu. Nola kudeatu hori guztia ustezko sare egonkorrik ez baduzu. Zeri deitu dakioke “sarea”?

Xake Produkizoak

XAKE PRODUKZIOAK 2015ean eratu genuen Xabier Ormazabalek eta Kepa Errastik.

2016an estreinatu genuen gure lehenengo lana, MAMI LEBRUN. Lan harekin Donostia Antzerki Saria irabazi ondoren etorri ziren LUR, FADOAK ENTZUTEN ZITUEN GIZONA, hau ere Donostia saria eta oraindik ere antzokietan ikus daitekeen gure azkeneko lana POSTDATARIK GABEKO GUTUNAK.

SIDARIrekin gure hamargarren urteurrena ospatzea gustatuko litzaiguke.


XAKE PRODUKZIOAK
MAMI LEBRUN


XAKE PRODUKZIOAK
LUR
DESIO BAKAR BAT ESKATU AHALKO BAZENU,
ZER ESKATUKO ZENUKE?


XAKE PRODUKZIOAK
FADOAK
ENTZUTEN ZITUEN GIZONA


XAKE PRODUKZIOAK
NEREA ARIZNABARRETA - KEPA ERRASTI
POSTDATARIK
GABEKO
GUTUNAK

